

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Joxepa Arregi Egidazu*

*Arrasate,  
Gipuzkoa  
(1919-2010)*

Aurkibidea



## Biografia



Musakola auzoko Garratz baserrian jaio zen 1919an. Hamaika anai-arreba ziren. Zigarrolan ibili zen eskolan, baina ez zen eskolara denbora askoan joan. 14 urterekin Etxaurreneko etxera joan zen neskame eta hiru urte egin zituen bertan, harik eta gerra hasi zen arte. Gerra ondorenean ezkondu zen Tomas senarrarekin, baina hirugarren semea izateko zegoela, gaixotuta hil zitzaion gizona. Orduetik aurrera senarra bazkide zen lantegian gogor lan egin behar izan zuen bizimodua aurrera ateratzeko. Seme gazteena atxilotu zutenean haren eskubideen alde borrokan hasi zen eta Etxerat elkarteko lehendakari izan zen urte askoan.

## Zintak

### ARR-027

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Garro, Eneritz
- **Data:** 1997-01-01
- **Iraupena:** 17 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

### ARR-039

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-02-04
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

### ARR-115

- **Proiektua:** Arrasate Press
- **Elkarrizketatzailea(k):** Garai, Jesus Mari - Plazaola Otadui, Estepan
- **Data:**
- **Iraupena:** 31 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Plazaola Otadui, Estepan

## ARR-125

- **Proiektua:** Arrasate Press
- **Elkarrizketatzailea(k):** Garai, Jesus Mari - Plazaola Otadui, Estepan
- **Data:**
- **Iraupena:** 91 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Plazaola Otadui, Estepan

## Pasarteak

### 1. Musakola auzoa nola aldatu den

- **Erref:** ARR-039/003
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:00:55. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

#### Laburpena:

<p>Garratz baserrian jaio zen, Musakola auzoan. Euren etxe inguruan lehen baserriak besterik ez zeuden, baina orain industrialdea eta Iberdueroko transformadorea dituzte aldamenean. Auzoko baserriak izendatzen ditu.</p>

#### Transkripzioa

-Eta kalia jaio ziñan?

-Ez, baserrixan.

-Nun?

-Garratzen.

-Nun dago?

-Hori baserrixori dao ba oin ein daue zera, baiñe zeretik Ber... zatozela, Musakolako auzuan, entre San Prudentzio ta Zigarrola. Horren aurrekaldien dao oin industria eta aldamenien dauko zera, Ibarduero. Lehen baserrixak zien bakarrik, baiña oin dao dana industria. Bera da baserri bakarrik.

-Zu umia ziñanetik asko aldatuko zan inguru hori.

-Puf, dana! Lehen ez zan, baserrixa ta kitto. Baiña oin noberan baserrixa zan lekuan be dana dau, ba zela gu errenteruek giñen, saldu ein euen lelengo zererako, zela da hori, autobusen garajie ein euen, eta gero ba fabrikak, bi edo hiru fabrika daz aldamenien, eta bestaldera (Iberdrolako) trasformadorea.

-(...) Herrixe osua aldatu da.

-Herrixe eta auzue dana (aldatu da), auzuen ba ez dau baserririk ia. Gero zan ba baserri asko, ein daue Eroski, ein dittuen fabrikak eta han bizi garen baserriarrak... gu bai oindion, Zabaleta be bai, baiña Zabaletak be ez dauko ezer, eta Ibardrola eta bestaldera dauko -ez jakiñat zela esango utsien zerari- fabrikak, hiru fabrika.

-Zenbat baserriekin akordatzen zara?

-Lehen? Ba giñen gu geure parajien geu, ez da, hola, eta gero aldamenien Zabaleta. Gero aurrekaldien Olatxo, eta harutzatxuau Omu, eta harutzatxuau Kataide. Hola. Eta oin hori danori da industria. Eta gero hola beherutz goiazela Bergarutz, errebuelta bat pasau ta eozen bi baserri; Artzubin oin zeroi ein daben lekuan, autopistan zerori, han eozen baserri bi. Eta beste bat honutzatxuau hiru. Eta gero Arruena, bi etxekue. Eroskigaz hori desaparezidu zan.

## 2. Etxezarreta inguruko baserri aberatsena

- **Erref:** ARR-039/004
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:08:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

### Laburpena:

Etxezarreta baserria zen inguruko inportanteena, jauntxo batena zen eta. Nondik norainoko lur-sailak zituen azaltzen du. Arrasateko mugak non zeuden. Etxezarreta baserriko gizona ingeniaria zen Madrilen. Neskameak izaten zituen etxean eta Joxeparen osabak administratzaile lanak egiten zituen. Era guztietako animaliak zituen etxean.

### Transkripzioa

-Kondiena kontaizu.

-A, Etxezarreta. Bueno ba Etxezarreta oindion Etxezarreta han dao. Baiña dauko terrenuek Berga partetik hola mendi bat, eta hola ekin San Prudentzion, San Prudentzion errekiek dibididuten dauela Oñeti eta Mundraue; Oñetiko errekiek separetan dau eta Mundrauekuak..., San Prudentzioko elizaraiño dauko terrenuek. Eta Mundrauera hortxe zereraiño. Hamentxe Arrasatetik kilometro batera, (terdireraiño). Barranko batetik separaten dau hola kamiñuaz Eroskiraiño, eta Eroskik errekiak separetan auen Mundraue eta zera. Eta hortik harutze dauko oin be San Prudentzioraiño bere terrenuek. Eta hori zerori, auto zerori bertaeiñ daue bere terrenuetan; Artzubi be bere terrenue zan. Zan mutilzahar bat bizi zan kriedakin, eta nire tio euen administrador de..., hor etxeke administradore, eta euken, porejemplo ba pentsau zenbat kilometroko saillek zien terrenuek, ba euken sagastixek, sagarrak. Eta euken hamen klase bat, eta hamen beste bat, hamen beste bat eta hamen beste bat.

-Ze urte izango zonan hori?

-Bai nik neukenan hamabi-hamahiru urte. Hola honigaz klasiogaz eta honigaz klasiogaz nahastau eta eitten euen bat eta beste bat eta beste bat. Bera zan "Injiniero de Obras y Canales" Madrilen.

-Kondia?

-Gizona, mutilzaharra.

-Kondia?

-Ez, ezebez. Ezebe ez zan. Ariza Etxezarreta. Zan mutilzahar bat, hantxe lana itten jonan. Titulua harena zonan "Inginiero de Obras y Canales". Bai, "Puertos y Canales". Eta euken bi neska, hiru neska. Ta gero euken bat neskazaharra etxien administradora, eta gurien (gure) tio etxeke kargue eta baserriko kargue. Euken behixek, euken animalixak: pabo realak, euken paittak, euken zerak, euken klase guztietatik, baiña dana holaxe ifinita, e.

## 3. Etxezarreta baserriko jaunaren "kapritxoak"

- **Erref:** ARR-039/005
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:08:35. **Bukatu:** 00:10:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

<p>Etxezarreta baserriaren inguruetan metal-ura zegoen eta bertako gizonak metal-ura ekarri nahi izan zuen etxera. Horretarako mailak egin behar izan zituen, metal-ura hodietan ekartzea ezinezkoa zelako. Animalientzako nolako etxe dotorea egin zuen azaltzen du.</p>

**Transkripzioa**

-Gure euen berak etxien eukittie ur... metal-ure. Kamiñuez bestaldera bere terrenuetan beuen, baiña bere etxien falta euen eta gura euen ekartia. Eta metal-ure etxera ezin leike ekarri, zegaittik eze zera jaten dau, burdiñie, burdiñie jan eitten dau eta orduen ezin leike haregaz zertu. Eta zela ekarri? Eta tubuen sartu ezkerro metala formetan da, bere zatixa edo zera.

Lokatzie, eta zerrau eitten die. Ba pentsaizu zelako lana izengo zan, han goiko puntatik, kilometruek, e!, bere etxe ondoraiño maila-maila-maila-maila-maila-mailak ure, eta egunero-egunero deposittue bat juaten zonan garbiketan, tio edo beste bat.

-Beroi ez.

-Ez! Berorrek andrakin nahikue lan jaukenan. Eta resultetan don..., bueno, metal-ure; gero paborealendako hamen bere zera, hamen usuek eta oilluek. Gero eñ euen ganaudendako korta bat guk etxie baiño asko be elegantiaue. "Con azulejos", ure erateko zerakin, dan-danakin.

-Porzelanazkuek-eta.

-Bai. Eta bueno, ipiñi euen etxe inguru bat! Bere etxie euken...!

**4. Etxezarreta baserriko kapera**

- **Erref:** ARR-039/006
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:10:25. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

<p>Etxezarreta baserriko jauna ez zen sinestuna, baina hala ere kapera bat zuen etxean eta apaiza ekartzen zuen meza ematera, bertako langileentzat. Madrilén bizi zen eta urtean pare bat aldiz etortzen zen Etxezarreta baserrira.</p>

**Transkripzioa**

-Baiña zan ateo. Euki euen lelengoko nobixie, eta itxi euen enbarazada eta resultetan da famelixiek ez otsen itxi ezkonketan neskieri ateo zalako. Eta ateo zan, baiñe krierai eta tiuei eta zera, bera hemen euenien, urtien bi bidar etorten zan ha, Gabonak inguruen eta agostuen, julio-agosto.

-Nun bizi zonan ba?

-Madrilen! Eta etxera etorten zanien etorten zien kriedok eta zerok, eta San Prudentziotik etorten zonan abadie mezia emoten. Jaukenan kapilla

bat ederkixo ipinitte!  
-Etxian bertan zekan kapillia?  
-Bai.  
-Nahiz ta kristaue ez izen... e?  
-Bai.

## 5. Etxezarreta baserriko panteoia noiz egin zen

- **Erref:** ARR-039/010
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

### Laburpena:

<p>Etxezarreta baserriko jauntxoa bergararra zen izatez. Arrebak bere buruaz beste egin zuen Parisen izan eta handik itzultzean. Bere buruaz beste egin zuenik ezin zenez lurperatu hilerrian, arreba 15 egunean etxean eduki zuen brontzezko kutxan eta gero etxeko lurra bedeinkatu ostean panteoia egin zion. Panteoia egiteko Elgoibartik lau gurdikada zementu ekarri omen zituzten.</p>

### Transkripzioa

-Bera hemengua zan?  
-Bergarakue. Eta hor euken txaleta. [...]. Landariek euken holakotxiek. Sagarran letxe dauko terreno guztiek gauza espezialakin. Eta bere jardiña ta zera. Es más, arrebie jua zan Parisera egun baten eta itxurie ein euen biharreztanen gauzatxoren bat eta etxera etorri ta suizidau ein zan. Tiro bi emun utsen bere buruari. Eta orduan gure izen auen, Bergan euken panteoie, eta Bergako panteoien, eta orduen suizidaurik ezin leikien sartu zerien, eta orduen ze pasau zan? Euki euen hamabost egun pasauen etxien arrebie, hildde, kaja zerien sartuta, brontzezko kajan. Bai, eta euki jonen etxien. Eta konsegidu euen bere etxien bereinkatu lurre eta bere etxien sartzia. Ein panteoie ta. Gure etxien aittak esaten jon, ze papel eukiko euen harek kajan barruen, ha kaja ez zala busti bihar. Eta Elgoibartik berak ein zittuela lau biaje zimentue ekarten, Elgoibartik, idixekin. Ein jonen. Eta gero ein jonen gaiñien...  
-Porlana ekartzen zer egiteko, panteoia?  
-Panteoie. Eta zela erreka onduan dauen, urek urteten jonan eta ez zonan biher umedaderik. Eta benga semento eta “benga semento para que no salga agua”. Eta gero ha ein jonen eta sartu jonen han. Baiñe zeriagaz ekarri jonen, burdixaz leran. Eske zan brontzezko... Eta hori oindion hor jan!  
-Panteoia?  
-Bai.

## 6. Etxezarretako gizonaren janzkera; hil zenerako dena prest

- **Erref:** ARR-039/012
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:24:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

**Laburpena:**

<p>Etxezarretako gizonak etxeko panteoian berarentzat zuloa prestatuta utzi zuen hil aurretik. Horrekin batera, notarioari bera hildakoan gauzak nola egin aginduta utzi omen zuen. Etxe inguruetan zebilenean kamisoiarekin eta kapa beltz batekin jantzita ibiltzen omen zen. Etxean esaten zieten berorika hitz egiteko Etxezarretako gizonari.</p>

**Transkripzioa**

-Gure aittak esan ei jutsanan: "Eta hau bigarren zuluau zetako dok pa, zetako edo zer?", eta "ba neu hiltten naizenien neu enterretako".

-Ia aurretik planeauta zeukan.

-Bai. Eta ailegau zonan bere zera ta hamabost egun lehenao ezkondu zonan, ein jittunan papelak, ta bueno ba, joan gintzonan, alargunduta gero hil zonan, eta joan gintzonan erresarixora, eta hor jaton erresarixua errezetan gazela Bergako notarixue. Eta esaten jutsen, bajauenan "con su uniforme de marinero", trajiakin. Baiña trajie zan hola zera, e. Eta bera bakitzu zela ibiltten zan? Eta guri etxien esaten oskuen ba berdurie edo etorten zienien ba tiok esaten usten, zanahorixak edo zeoze erueten juaten gintzonan Kataideko gaztaiñadittik bueltan, kamiñotik ez. Ta bera pasietan ibiltten zonan-ta, gure ordenie zan, topetan bagauen bidien, esateko: "Egunon bedorri, jauna!", o "arratsaldeon bedorri, jauna!" Eta guk esan baiño lenao hola... Baakin ze(re)n tipokue zan? Holakotxe bat. Hamen holakotxe perillie, hamen puntillazko kamisoie, eta behian puntilla bistan eta kapa bat, kapie abierto, ta kamisoiatz!

-Egun guztia?

-Bai. Gero jantzitze juaten zonan kalera baiña. Bere terrenotan bere kamisoi horregaz eta beronen zer horregaz hola.

-Azpittik ez zeban ezer eruaten, frakarik-edo?

-Keba! Pelotok aidien ibilliko zittuen-edo, kaltzontzillue-edo, ez dakit baiña.

-Ze kapa? Azul marinua?

-Baltza. Kapatxo bat, liso-liso bat, zeoze tapetako.

-Egunero?

-Egunero.

-Udatan etortzen zan?

-Uda ta negu ha ez jonan kentzen. A, eta bueno, hil zan, jantzi utsien uniforme hori eta ipiñi euen kajan hola, etorten don notarixue eta esaten jon: "Que no le hace falta ningún crucifijo, ningún traje, ningún esto." Bakarrik falta eitten dutsela atzenengo momentuen egon zan kamisoia eta ia esta. Gehixo ezebez, e. Kajie be kruzifijo eta ezebe barik. Pentsa ein zelako...

-Hori idatzitta itxi jonan?

-Notarixua etorri zonan ordenie emoten. Hori notarixan testamentue indda jaukenan, zela enterrau ta zela ein bera..

-Bera lurperatu baiña...

-Bere kamisoiekin.

**7. Izebaren gorpua baserririk baserri Arrasatera**

- **Erref:** ARR-039/016

- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:28:40. **Bukatu:** 00:31:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

#### Laburpena:

<p>Bere izeba Etxezarreta baserrian zegoela hil zen. Etxezarreta baserriko bidea Bergara partera irteten zen. Handik joanez gero Arrasatera, elizari "deretxoak" ordaindu egin behar izaten zitzaion. Bere izeba hil zenean, ez ordaintzearren, bizkarrean eraman zuten baserririk baserri Arrasatera. Orduan egin zuen bidea baserritik Arrasatera, berriz horrelakorik gerta ez zekion.</p>

#### Transkripzioa

-Nire tia hor hil zonan, bai, eta hil zan eta, klaro, bere bidie da kamiñora urteteko Bergarara urteten dau. Entendiduten dustazu, errekie pasetan dau eta da Bergara. Eta pagau bihar zittuan deretxuek elixieri, e, Bergara pasau eta Mundrauera etorteko. Ba ez! Ekarri jonen Kataideraiño bixkarrien, Kataidetik pasau jonen Garratzera ta Garratzen ipiñi jonen automoillien eta eruen jonen tia kanpasantura.

-Eta hil zan bere etxian?

-Bai.

-A, klaro, bide haretatik Bergarara ailegatzen zara?

-Bai. Errekie pasau ezkeru, zubixe pasau ezkeru Bergaran hao.

-Eta ezin jonan?

-Bai, baiña deretxuek pagau bihar jittunan. Elixieri, ez deretxuek pagetearren elixieri Kataidetik bueltan. Burdibidien, bai.

-Ez dago biderik Mondraerutz bere etxetik?

-Gero, bai, Zabaletako zubira ein jonan, orduantxe ein jonan. Beste deretxorik pagau barik ibiltteko, ein euen bidie, Zabaletako zubixa esaten jakona.

-Berez bidia jaukanan berak Bergaratik.

-Bai.

-Mondrauerutz ez jaukanan.

-Ez. Beorrek ezebez. Bergatik. Bere bide printzipala zonan kamiñotik.

-Kataide zonan han behien euen baserrixa? Han zer jauenan Etxezarretaraiño?

-Ba zera, gaztaiñadixe eta zerak, gauzak, lurre, arbolak eta solo apur bat eta ganauek ibiltteko parajie.

-Etxezarretako bidera urteten daben zubi hori gero ein jonan?

-Tia hil zanien. Ez gehixao holakorik pasetako, ein auen bidie Zabaletako zubittik San Pruentzioraiño. E! Bere terrenuetatik, baiñe Mundraueko terrenuetatik.

- Ez pagatzarren.

- Bai. Ba, beste behin ba horixe pasau ez dain.

## 8. Inguruetakoko umeak Etxezarretara joaten ziren

- **Erref:** ARR-039/018
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:32:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena:**

<p>Bere lehengusuak Etxezarreta baserrian bizi ziren, aitak zaintzen zuelako etxea, eta eurak ere asko joaten ziren hara. Noizean behin, txokolatea edo jateko zerbait ekartzen zieten, eta eurentzat festa handia izaten zen.</p>

**Transkripzioa**

-Hi eskola juaten hintzenan?

-Eskolara baiña Zigarrolara.

-Bera etortzen zonan bakaziñotan?

-Bai, eta hor nire primuak hor bizi zittunan eta ni sarri juaten nintzongan hara, baiñe erresultetan don hola fiestara eurak ekarten zittuenak jaten, ba sagastiko txabolan (...) eitten gauen sue, ta txokolatie, ta bakizu zelako ederto pasetan gauen! Ta eurak pe bai geure...

-Ze juaten ziñaten, auzokide danak, anai arrebak-eta? Zeu zeñegaz juaten ziñen?

-Ni, Alberto eta Esperantza. Eta gero Justina Arruena, Julia Arruena, ta gintzongan kuadrillakuek. Baiña guk ondo pasetan gixonan, buenoo!

-Zure primuak-eta han bizi zien, ez, etxia zaintzen zebelako?

-Bai. Bera hill arte, e.

**9. Epele errekek bereizten zituen Bergara eta Arrasate**

- **Erref:** ARR-039/020
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:36:30. **Bukatu:** 00:37:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

<p>Lur-sailen mugak. Oñtilde;ati San Prudentzioraino sartzen da, baina Bergara eta Arrasate Kanpazartik behera datorren Epele errekek bereizten zituen.</p>

### Transkripzioa

-Oñati aillegetan da San Prudentzioraiño bakarrik.

-Baiña Bergara bai, ala?

-Bai, Bergara aillegetan da, Bergara separetan dau Kanpazartik datorren bidiek. Bidie ez, errekiek. Eta hantxe Artzubin hola eitten dau Epele Errekak hola, eta hola eitten daueneian, ia hori geraketan da Mundraue eta hau Berga.

-Barrena eta Bergara dia.

-Bai.

-Zigarrola bera be Bergara da ala?

-Mundraue, Mundraue. Zigarrola. Artzubin badau ba hori oiñ, ipiñi daue ba rotondie, hortxe separetan da Bergara. Hortxe dao Bergaran atzenie, hortxe goittik behera dator errekie.

-Errekia, ni akordatzen naiz txikittan-ta baiñatzera ta juaten giñala.

-Bai. Epelera, honbre! Guk terrenue geukenan hor da bueno. Gu betik bizi izen gitzonan ba hortxe.

-Udalaitzetik etorriko zonan hori.

-Kanpazartik. Gero Bizkaixe separetan jon...

-Kanpazarko gaiñak.

-Bai. Asi eske handik hola ta hola.

## 10. Zigarrola auzunea; eskolaren ordez baserriko lanetan

- **Erref:** ARR-039/021
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:37:55. **Bukatu:** 00:41:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

### Laburpena:

<p>11 anai-arreba ziren. Zigarrolako auzunean ibili zen eskolan, baina asko ez zen joan eskolara etxean lanak egoten zirelako. Aita "karretero" lanetan ibiltzen zen eta amak 11 seme-alaba izaten zituen bere kargu. Hori dela-eta soroan amari lagundu behar izaten zioten eta baita astoarekin kalera joan eta generoa saltzen ere. Zigarrola auzunea nolakoa zen lehen.</p>

### Transkripzioa

-Esan dozu eskolara Zigarrolara joaten zinetela?

-Bai

-Garratzen zenbat anai-arreba ziñeten?

-Hamaike. Ni eskolara ez nintzen asko juan, e. Ez. Juan banintzan be eskolara nik ez nauen ikasi eta ez dakit. Baiña bizixa atara dot eta ia esta, e!

-Bertakua zan maixua ala Zigarrolan?

-Zigarrolan, Ziorrolakua da eta Mundrauekue.

-Baiña maixua edo maistria bertakua zan?

-Bai, Mundrauekue. Zigarrolakue ez, Zigarrola da auzounatxo bat. Baserrixe dauko, oin baserri gutxi dauko, lehen baserri asko (...) baiña. Eta gero euen lehen zerra bat. Oin ia asko daz baiña, enfin. Baiña lehen Zigarrola zan zerrie eta gero hola etxe bat.

-Xerrie eleiza onduan edo ez jauanan?

-Bai. Zerak, horrek etxiak dazen eindde. Zera dauen lekuen, funeraria ta zerok.  
-Ta eskolie nun jauenan ba?  
-Ba eskolie jauenan etxien. Hola dauena etxie? San Isidroko soziedadie dauan lekuen. Bai. Ha frentekue hola. Hantxe planta bajaran jauenan eskolia.  
-Eta zu zela ez ziñen ba eskolara juan? Lan asko eukenan?  
-Bai. Gure etxien orduan momentu horretan asko gintzonan. Eta nik aitta neukenan oso rektue. Zabaletakuek baiño gehixao izen biher gintzonan. Eta Zabaletakuak aberatsak zittunan eta gu pobriek. Eta aittak ekin jutsenan karratero burdixaz Mundrauetik Elorrixora. Gero hamendik Elgoibarrera. Eta ba amak sostenidu bihar giñunan hamaika anai-arreba. Eta eitten gixonan guk lan asko zererako, ortuen. Oñetira juaten gintzonan astuaz, Bergara eta Mundrauera. Eruaten gaixonan landarie ta berdurie ta. Eta amak biher jonan gu tentiek izetia. Bera zan moduen.

## 11. Aita alargun geratu eta koinatarekin ezkondu zen

- **Erref:** ARR-039/022
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:41:05. **Bukatu:** 00:42:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

<p>Ama neskame egon zen Bilbon eta senargaia ere bazuen. Baina bere ahizparen senarra alargun geratu zenean, harekin ezkontzera behartu zuten. Joxeparen aitak, aurretik zituen lau umeez gain beste zazpi izan zituen lehenbiziko emaztearen ahizparekin, hau da, Joxeparen amarekin.</p>

### Transkripzioa

-Eske bera egon zan krieda Bilbon. "Aña seca". Eta euken nobixue ta aitta geratu zan alargun eta aittegaz ezkondu erain utsien eta ekarri euen baserrira.  
-Zure aitta zure amaren aiztiakin ezkondata jaonan eta alargundu zanian (...). Tia hil zanian amakin ezkondu erain zotsen.  
-Bai. Esaten utsen: "Ha obligau dozu baiña niri ez nauzu burue bajatuko, e!" Aittai esaten jutsenan amak.  
-Hiru seme-alaba euki jonan lehenakin, edo zenbat?  
-Lau.  
-Eta bigarrenakin, Doloresekin?  
-Zazpi.  
-Oseake hamaika ziñazien baiña lau zien tianak ta beste zazpi...  
-Bai, baiña danok gintzen...  
-Igalak.

## 12. Neskame zela, gose zelako egindako gaiztakeria

- **Erref:** ARR-039/024
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:43:30. **Bukatu:** 00:45:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

<p>Neskame egon zenean zeraman bizimodua azaltzen du. Goseak egoten zen; eta, behin, harategitik okela erosi zuenean, bat beretzat gorde zuen. Nolanahi ere, nagusia jabetu egin zen.</p>

**Transkripzioa**

-Ba zan kale etxie, komedorie, han bazkaitten geuen ta zera. Ta ha garbittu ta hango lanak eta kuartobaiñue ta zerak ondo ipiñi eurak jaiki baiño lehenao. Eurak juaten zien beratzietako mezetara. Eta bueno, etorten zien eurak, armozetan jonen eta nik itxoin bihar izeten naxonan esnedune etorri arte. Eta esnedune etorten zanien armozau eta ia esta, harek emuten joskunan katilluan eta ya esta.

-Esnie, besteik ezebe?

-Kafesnie zerakin, ogixakin.

-Azukrie bai?

-Bai. Baiñe neu be izengo nintzen, baiñe ba... gaiztokerixek eitteko. Hori da inozentie izetie, baiña ein neuen egun baten hiru lauren filete karnezexiatik erosi ta filete bat ostu.

-Euretako?

-Bai. Eta zerien gorde, esterapeien. Ta juan nintzenien ba zela falta zan; zela, ez dustiela emun ondo. A ba juango nintzela. Bueltan hartu zerien, juan karnazerixara, Marianokin egon, Mariano karnazeruanian zonan da, Marianokin egon barriketan, etorri tta, "barkeske eskatu dost, ez dala akordau ta". Ya esta.

-Azpitik hartu eta...

-Bai ba. Ipiñi...

-Konturatu zan?

-Bai, eske baiña zeu ez zara konturaketan zer ein dozun argi euela falta zana! Baiña iñozentia.

-Gosia bazeukazun zeoze ein bihar, ondo urtetzen bazeban...

**13. Bi neskameren artean, nagusiei egindako gaiztakeria**

- **Erref:** ARR-039/025
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:45:40. **Bukatu:** 00:48:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

<p>Etxeko nagusiak ahizpa Madrilen bizi zuen. Mutikoak jaunartzea egin behar zuela eta, Madrilgoak etorri ziren eta ez zeukaten denak mantentzako lain genero. Eurak ere goseak egoten ziren. Madrilgo neskamearen eta bien artean egindako gaiztakeria azaltzen du.</p>

### Transkripzioa

-Madriden euken famelixie, ba aizta bat han bizi zauen ta alargun geratu zan. Muxibarko Txuluen koiñetie. Geratu zonan alargun eta juan zittunan ha zainketan bi aizta, eta han bizi zittunan, eta ba Primera Comunion in bihar jonan mutikuorrek eta etorri zittunan juniuen. San Inazio egunian ein biher jonen, eta bueno. Gero gerriak urten jonan eta handik etorri zittunan lagun asko eta danok manteniduteko biderik ez jauanan. Eta orduen zerak ein jonan, Madrideko kriediek ein jonan: guri emuten oskun esnie etorri ekarrenien, ezta?, eta gero hoztu eta geraketan zan telie, natie eindde. Pentsa ein ze ein geuen egun baten, esniei zer ein guntsen: lastue sartu, esnie edan, eta ahuen ure hartu eta ure bota. Pentsa ein neurri barik zer. Hurrengoko goizien...

-Zelan nata azpixon ez zan ikusten...

-“Ene!” Baserritarrak zera jaukenan izena, Joxepa, “Joxepak ze esne txarra ekarri duskun, ze pasau ete da?”. “Ze pasau...” . Aillegau in gintzonan. Bueno ba nik ez jakiñat zetatik akordau jakon edo lehenao eindda euken edo niri lastorik eta holako gauzarik ez jatenan akordau.

## 14. Erreketek batekin pasatako gertakizuna

- **Erref:** ARR-039/026
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:48:05. **Bukatu:** 00:51:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketek

### Laburpena:

<p>Hiru urte egin zituen neskame, gerra hasi arte. Nagusiak Gasteizera joan ziren eta bera etxera itzuli zen. Gerra denboran, San Prudentzion erreketek formatzen ziren eta eurak hara joaten ziren "dotoreena" zein zen begiratzen, hari zerbitzatzera joateko. Erreketek batekin gertatu zitzaion pasadizoa kontatzen du.</p>

### Transkripzioa

- Urte asko neskame?

- Hiru ingo nittunan.

- Hiru bakarrik?

- Bai. Gero ba horrexek, gerriak urten jonan eta gerriek urten euenien etorri nintzonan, eurak juan zittunan Bitorixara, eta Bitorixara juan zienien ni etorri nintzonan ba nik hamen banaukela famelixie eta ni etxera. Etxetik, Maxima jaonan San Prudentzioko estankuen, eta San Prudentzioko estankura juan nintzonan. Eta han jazen...

- San Prudentzion estankua jaonan?

- Bai, oin... tabernie ta estankua jaonan ta han behien, oin dana kanbixauta jan baiña behien jauenan dantzalekue. Eta han dantzalekuen eitten zittunan reketiek formau, eta soldauiek eta zerak han formatan zittunan-ta. Gu goittik dotoriene, zein zan guapuena topau. Entendiduten dusten? Eta gero zerbiduteko juaten giñenien ba hantxe. Eta egun baten soldau bat jauenan, kabroi bat zonan, ta beti jartzen zonan hola ate kontran, eta betik. Eta “Deskuidetan bahaz pentsau, e! Emoten dustatenaz hagiñek

botata itxiko dostat, e!” Erderaz baiña bueno. Eta bueno hor egun baten ba itten justen, joten jonat eta bi hagin botaten jutsenak. Eta nun juntauko, hurrengo egun baten banaton etxera, eta gure etxien jazen an orduen Garratzen komandantie ta ez jakiñat zein etxien lo eitten. Eta zonan asistentie edo zera. Asistentie tenientiena, hagiñak apurtu nutsena. Juaten non eta han jan. “¿Tú a qué vienes aquí?” “¿Tú a qué vienes aquí?”, ni nok hamengue eta heuk zetan etorri ez; nik esan ustaten deskuidetan bahintzen emungo dostatela. Eta ba ez hitzen portau ta Ya esta! Eta esan justenan...

- Komandantiak zer?

- Etorri zonan, “¿Qué pasa? Pues esta no se qué...” “Yo sí, yo le di”, baiñe nik emun jutsat esanda, zegatik eze beti ate onduan jartzen zuan eta derrigorrian ikutu biher jua hortxe, eta esan nutsan: “dexkuidetan bahaz emungo dostat, e!”, eta emun nutsan eta “ala, ya está”. Esan jutsenan: “A, esan dusk horrek zer, kulpie heuk euki dok falta baittuk hor”.

## 15. Senarra plazan ezagutu zuen

- **Erref:** ARR-039/028
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:52:20. **Bukatu:** 00:54:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

### Laburpena:

<p>Lehenbiziko senargaia karlista zen, baina hura aberatsa zen eta bera pobrea eta mutilari ez zion utzi familiak berarekin ibiltzen. Gerora plazan dantzara joanda ezagutu zuen Tomas, bere senarra izan zena.</p>

### Transkripzioa

-Gizona nun ezagutu honan ba, hire gizona?

-Ba lelengoko nobixua izen nixonan karlistie. Bai, toma carajo! Ta ba itxurie danak konforme zittunan baiñe bueno. Erresultetan don Martizen Aratostez zezena, eta zezenien etortzen gintzonan hortik horra, da hor sartzen gixonan kortan eta bixenbittartien labaderora jua eta musue garbittu ta guapa ipiñi-ta. Ta zonan fubolistie eta jaukenan orrazixe eta ipiñi guapo-eta... zerian. Eta bueno, ba del braso ibilliko gintzonan hartalataiko-edo. Ikusi giñunan-ta ni pobrie nintzonan da mutilla aberatsa, eta ez utsien itxitten niregaz ibiltten. Ni baserritarra ta kriedie ta bera ofizinistia. Eta bueno, etxera jua zanien ez utsien urteten itxi. Ez utsien (etxetik) urteten ba ni dantzan edo urtengo naixonan plazara ta nogaz juntauko, ia esta! Gero ba ia esta, haregaz akabau naixonan.

-Zeiñegaz juntau ziñan?

-Tomasegaz. Gizonagaz.

-Plazan dantzan orduan?

-Dantzan da zerien da gero handik aurrera nobixo. Ezkondu arte. Gero urten euen gerriek.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-06-02*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com